
OSASUN SAILAREN ETA OSAKIDETZAREN GOMENDIOAK. ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA (EELZ). COVID-19

Euskadin koronabirusak –COVID19– eragindako infekzio-kasuak agertu ondoren, eta infekzioaren eragina handitu egingo dela aurreikusten denez, Osasun Sailak eta Osakidetza gomendio hauek zabaldu nahi dituzte, udal-esparruan jarduteko proposamen gisa, eta, zehazki, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuari lotutako prestazioak kudeatzera bideratuta.

ZERGATIK DIRA BEHARREZKOAK GOMENDIO HAUEK?

COVID19ak eragindako egungo egoeran, sistema soziosanitarioaren lehentasunetako bat da biztanlerik ahulenak babestea, batez ere adineko pertsonak eta beren autonomia mugatua dutenak. Etxez etxeko laguntza-zerbitzuak hurbiltasuneko funtsezko prestazioa eskaintzen du, kolektibo jakin hori bere etxean egon ahal izan dadin, egoera konpentsatu eta egoki batean, eta bizi-kalitatearekin, zerbitzu honen jardun profesionalari esker. Bestalde, etxebizitzaren arteko mugikortasunak dituen ezaugarriak ikusita, EELZko profesionalak kutsadura-bektorea dira, eta arrisku berezia dute kutsatzeko.

Horiek horrela, protokolo epidemiologikoak aplikatuz, ezinbestekoa da izan daitezkeen gorabeheretako jarduerak deskribatzeko banakapena egitea, EELZko kolektibo profesionalak, erabiltzaileak eta, oro har, biztanleak babesteko.

NOLA ERAGITEN DU KORONABIRUSAK?

Koronabirusak, alderdi askotan (transmisioa, morbi-heriotza), gripearen birusen antzeko profila du. Adinez nagusi diren eta komorbiditatea duten pertsonak, kasu askotan arreta-zerbitzuak erabiltzen dituztenak, dira arriskurik handiena dutenak, infekzioa hartzen baldin badute. Horregatik, oso garrantzitsua da gure adinekoei laguntza ematen dieten oinarritzko talde profesionalak ere babestea.

ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUEN EZAUGARRIAK

Etxez etxeko laguntza-zerbitzuko langileen lanbide-kualifikazioa etxez etxeko laguntzailearen titulua da, lanbide-ziurtagiri soziosanitarioa ematen duena, prestakuntzako bide ofizialen bidez lortua. Prestazio hori udalaren eskumenekoa da (Arabako lurralde historikoan izan ezik, hor Arabako Foru Aldundiak ematen baitu zerbitzua, Vitoria-Gasteiz kenduta), eta zerbitzua adjudikatuta duten enpresek kudeatzen dute. Udal-esparruan, Gizarte Ekintzako sailen mende dago.

EELZko langileen oinarritzko eginkizunak hauek dira:

- Zainketa-lanak: erabiltzailearen zainketa pertsonalekin zerikusia duen guztia (garbiketa, higiena, jantziak, mobilizazioa, elikadura...).
- Etxeko lanak: etxeko eguneroko lanaren kudeaketarekin zerikusia duen guztia (janaria prestatzea, zoruen garbiketa orokorra, gainazalak eta komunak, arropa garbitzea eta lisatzea...).

Erabiltzaileak duen mendekotasun-balorazioaren arabera, laguntza emateko tartea hau da: asteen 2 egunetan, gutxienez ordu eta erdiz, edo asteen 5 egunetan, eta gehienez 3 ordu egunean. Asteburuetan eta jaiegunetan, berariazko langileak arduratzen dira. Langile berberak izaten dira beti, bai astegunetan bai asteburuetan.

Adjudikazioa duen enpresak hornitzen duen lan-ekipamendua hau izaten da: mantala edo pijama, eskalpoi irristagaitzak, eta erabili eta botatzeko eskularruak. Eskuak garbitzeko protokoloa bete behar da eskularruak jarri aurretik eta ondoren. Era berean, eskuak garbitu behar dira, maila desberdineko lanen artean.

ETXEZ ETXEKO LAGUNTZAILEENTZAKO GOMENDIO PROFESIONALAK

- Ahalik eta gehien zorroztu eskuak urarekin eta xaboiarekin garbitzeko neurriak, bai erabiltzailearen eta erabiltzailearen artean, bai espazio komunetan gainazalak ukitu aurretik eta ondoren.
- Profesionalek maskara kirurgikoa erabili behar dute arnas klinika duten erabiltzaileekin kontaktuan daudenean (ez bada koronabirusa izateko susmagarria).
- Maskara kirurgikoak erabiltzea gomendatuko zaie arnas klinika duten erabiltzaile guztiei.
- Koronabirusaren kontaktuak edo positiboak diren profesionalak edo erabiltzaileak Osasun Publikoak identifikatu eta berretsiko ditu. Era berean, Osasun Publikoak haien jarraipena egingo du, eta zentroak haiek zehaztutako jarduera-protokoloak bete beharko ditu.
- Sukar edo arnas klinika akutua duten profesionalak ez dira beren lanpostura joango eta enpresako Lan Osasuneko Zerbitzuarekin jarriko dira harremanetan. Osasun Zerbitzuan baja telefonoz ematen da.
- Kontaktutzat jotzen diren profesionalak hartu beharreko neurrien berri emango zaie, eta Osasun Publikoak eta beren enpresako Laneko Osasun Zerbitzuak kontrolatuko dituzte.

ETXEZ ETXEKO LAGUNTZAILEENTZAKO JARDUERA GOMENDIO OROKORRAK

Etxez etxeako laguntzailearen rola oso garrantzitsua da erabiltzailearen eguneroko bizitzako erreferente gisa. Bere lanari dagozkion eginkizunak egiteko lan exekutiboaz gain, beste elementu batzuetan, lagungarria izan daiteke gaur egungo egoera ondo ulertzea, etxe barruan, lasaitzeko eta denbora-muga batzuen barruan kokatzeko, denbora gutxi-asko laburrean normaltasunera segurtasunez itzultzeko.

Horregatik, prestakuntzako jarduera gisa, inguruabarrak eta horiei lotutako teknikak argi eta garbi azalduz gero, kolektibo profesionalak erreferentea izan behar du, oro har hartu beharreko neurrietan.

- Garbitu eskuak maiz.
- Eztul edo doministiku egitean, estali ahoa eta sudurra ukondoarekin edo zapi batekin. Bota zapia berehala eta garbitu eskuak alkoholarekin egindako eskuetako desinfektatzaile batekin edo urarekin eta xaboiarekin.
- Utzi gutxienez metro bateko tartea eztul eta doministiku egin eta sukarra duten pertsonengandik.
- Ez ukitu begiak, sudurra eta ahoa.

EELZ aukera bat da arau horiek etxean gertu-gertutik eta konfiantzaz sartzeko.

Era berean, beste gai orokor batzuetan ere kontseilari-lana egin behar da, hala nola gai hauei lotutakoetan: bizitza soziala arduraz murriztea, bisitak murriztea, jende asko dagoen espazio publikoetan egotea, besteak beste. EELZk emandako prebentzioko argibideak balio handikoak izan daitezke.

ETXEZ ETXEKO LAGUNTZAILEENTZAKO JARDUEREN EZAUGARRIAK

A egoera. Etxean ez da ikerketa-kasurik identifikatu. (COVID-19 kutsatzeari lotutako arriskurik gabeko egoera)

Egoera hau etxe gehienetan izaten da, eta prebentzioko neurri unibertsalak muturreraino eramanda bete beharreko jarraibideak enpresak ezarritako protokoloetan egon ohi direnak dira.

B egoera. Etxean kontaktu asintomatiko bat identifikatu da. (COVID-19 kutsatzeko arriskuari buruzko zalantzazko egoera)

Egoera honetan, osasun publikoak egiaztatu du erabiltzaileak harremana izan duela aurreko 14 egunetan baieztatutako kasu batekin. Erabiltzaileak ez du arnas sintomarik ez sukarrik. Egoera asintomatiko horrek bere horretan jarraitzen badu, 14 egunen buruan amaitutzat emango da isolamendua, eta A egoerara itzuliko da.

Kasu horietan, erantsitako etxez etxeoko isolamenduaren protokoloa aplikatuko da. Zenbait ondorio ditu, eta pertsona osasun publikoaren zaintzapean egongo da kasua positiboa den ala ez erabakitzeko.

- Erabiltzailearen osasuna zaintzea: normalean, eskatuko da egunean bitan edo gehiagotan tenperatura hartzeko eta sintomak zaintzeko, osasun publikoari berehala jakinarazteko. Kasu horretan, EELZren prestazio osagarri bat izan daiteke tenperatura hartzeko eta erregistroa egiteko gainbegiratze-lana.
- Isolamenduaren baldintzak: protokoloak deskribatzen du etxe barruan zer baldintza bete behar diren: gela bat kontaktuarentzat, garbia eta aireztatua, eta dagokion bainugela. Normalean, kontingentzia-plan bat egingo da etxe bakoitzaren barruan, normalean erabiltzailea bakarrik bizi baita horretan, haren baldintzek irizpide hori bete ahal duten ikusteko, eta, hala ez bada, irizpide horretatik ahalik eta hurbilen egon dadin lortzeko. Garbiketa orokorra protokoloan adierazitako irizpideen arabera egingo da, eta arreta berezia jarriko da ukipen-eremuen edo -gainazalen garbiketan (eskulekuak, argi-etengailuak, ohiko erabilerako azalerak...).
- Profesionala babesteko neurriak: egoera honetan, profesionalak norbera babesteko oinarritzko ekipoa (NBE) erabiliko du: mantala, maskara kirurgikoa eta eskularruak. Era berean, ahalegina egingo da erabiltzailearekin metro batetik gorako tartea uzteko, betiere, zeregina egiteko oztopo ez bada. Laneko arropa garbitzeko ohiko dinamikaren arabera garbituko da, bereizita eta ur oso beroko programan (60º-80º).

- Beste pertsona batzuekin harremanetan dagoen erabiltzaileak (bisitak edo etxez etxeko laguntzaileak) maskara kirurgikoa eramango du. Bisiten murrizketa eskatuko da, eta adieraziko da, eginez gero, zorrotz bete beharko direla arau orokorrak, eta maskara kirurgikoa, mantala eta eskularruak eraman beharko dituztela. Ez dute inola ere ordubetetik gorakoa izan behar, eta, jakina, bisitariak ez dute arnas sintomarik edo sukarrik izango.

C egoera. Etxean kontaktu sintomatikoaren kasu bat edo COVID-19 positibo berretsia duen erabiltzaile bat identifikatu da. (COVID-19 baieztatua kutsatzeko arriskuko egoera)

Egoera honetan, gaixorik dagoen pertsona bat dugu. Gaixotasunaren tamaina eta larritasuna une honetan ez da ospitalera eramateko bezain handia, baina bilakaeran, okerrera eginez gero, litekeena da ospitale-baliabide bat behar izatea. COVID-19 positiboaren kasuak, berez, ez dira ospitaleratzeko adierazle, gaixotasunaren ondoriozko konplikazioak dira horren adierazleak. Alabaina, kutsatzeko oso arrisku handia duten pertsonak direnez, muturrera eraman behar dira protokoloan deskribatutako isolamendu- eta babes-neurri guztiak.

- Erabiltzailearen osasuna zaintzea. Kasu honetan, arnas klinika eta/edo sukarra duen erabiltzaile bat dugu etxean. Horien larritasuna osasun-zerbitzua ematen duen zerbitzuak baloratuko du (etxeko ospitalizazioa, oinarritzko arreta...). Erreferentziako pertsona batek emango du, eta etxeko laguntzaileak horren berri izango du. Gainera, ohiko telefono-harremana izango du erabiltzailearekin, eta, beharrezkoa bada, aurrez aurre. Larrialdi egoera batean, Osasun Kontseiluaren edo Larrialdien ohiko bideak erabiliko dira.
- Isolamenduko baldintzak: B egoeran deskribatutakoak.
- Langileak babesteko neurriak: bi lan-mota bereizten dira:
 - Etxeko lanak: horretarako, profesionalak oinarritzko NBE bat izango du, B egoeran deskribatutakoa bezalakoa.
 - Haiengandik hurbil egotea eskatzen duten zaintze-lanak: betaurrekoen NBE osoa, FFP2 maskara, mantala eta eskularruak.
 - Ahalegina egingo da erabiltzailearekin metro batetik gorako tartea izateko, betiere, lanak galarazten ez badu. Laneko arropa garbitzeko ohiko dinamikaren barruan garbituko da, bereizita eta ur oso beroko programan (60º-80º).
- Bisitak. Egoera honetan, ez da batere komeni bisita presentzialak egitea; horren ordez, beste komunikazio-mota batzuk erabili behar dira (telefonoa, bideo-txata...). Erabiltzailea etxeko laguntzailearekin dagoenean, maskara kirurgikoa eramango du beti.

ETXEZ ETXEKO LAGUNTZAILEENTZAKO PRESTAKUNTZA

Prebentzioko neurri orokorreki buruzko kontzientziazio-elementuak enpresaren prestakuntza-planaren parte izango dira une honetan. Halaber, B eta C egoeretarako, prestakuntza osagarria beharko da oinarritzko bi arlotan:

- Garbitzeko eta desinfektatzeko baldintzak: protokoloko jarraibideak betez, eta enpresaren prestakuntza-ibilbideen barruan, langileak behar bezala prestatuko dira, garbiketan eta desinfekzioan sartu beharreko alderdiei buruz.
- Laneko prebentzio-tekniketan, teknika orokorretan eta osasun-materialaren erabileran prestatzea. Osasun Sailak eta Osakidetza prestatuntza-pakete bat jarriko dute eskura, langile guztiek formatu ez-presentzialean erabil dezaten. Horrela, prestatuntza jasoko dute eskuak garbitzeko eta higieneko teknikei, laneko arriskuen prebentzioari eta NBEak behar bezala jartzeari buruz. Beharrezkotzat jotzen bada enpresek prestatuntza zehatza eta presentziala ematea, Osakidetza arduratuko da horretaz.

KOORDINAZIOA ETA HORNIDURA

Gomendio hauetan deskribatutako Kontingentzia Planak erreferentziako profesional bat izango du Osakidetzaren barruan, eta profesional hori behar bezala jarriko da harremanetan, gomendioak aplikatzean sor daitezkeen arazoak konpontzeko, eta, kasu bakoitzean, material sanitarioari dagokionez, hornidura-beharrak kudeatzeko.

Gomendio hauek egungo egoeraren bilakaeraren edo protokoloetako xedapenetan izandako aldaketen arabera eguneratu beharko dira.